

Entzun – AFRIKA (“Entzun” albuma 2004)

Entzun esan beharrekoa
nire sentimenduak askatzen ez naiz abila
baina nire burua azaltzeko,
barruan dagoena erritmo bihurtuz urteten da..

Entzun, esan beharrekoa ez hitzetan,
gorputzak mugimendua eskatzen dit
eta halaxe ematen dizuet..
entzun esan beharrekoa hola adierazten,
mamuak desagertarazten bizitzari zentzu bat bilatzen.

Une txarrek batez ere, inspirazioa ekartzen didate
eta argia ematen denean
sentimenduzko kantak bihurtzen dira...

Entzun...

LAN-PROPOSAMENA:

- 1- ABESTIA ENTZUN
- 2- POST-IT BATEAN BAKOITZARENTZAT DEIGARRI DIREN HITZAK EDO ESALDIAK IDATZI.
- 3- BATERATZE-LANA: KIDE BAKOITZAK ZER ETA ZERGATIK IDATZI DUEN ADIERAZI.
- 4- ONDORIOAK.